

ULERMENEZKO IRAKURKETAREN EBALUAZIOA

Angel Sanz Moreno.
Ikuskaria

Atlante proiektuak aurreikusten du irakasleek hilabetean behin, gutxienez, ebaluatuko dutela narrazio eta azalpen testuen ulermena, etapako hiru zikloetan. Bertan esaten da, gainera, ulermen literala eta ulermen globala ebaluatuko direla, eta baita testu bat interpretatzeko eta berregiteko gaitasuna ere eta testuaren formaren eta edukiaren gainean hausnartzeko gaitasuna ere.

1- Kontzeptuak argitzeko

Jarraian, testuen ulermenarekin zerikusia duten alderdi hauek zer diren argituko dugu.

a) Ulermen literala

Batzuetan, **berariazko informazioa identifikatzeko eta berreskuratzeko** irakurtzen dugu. Adibidez, denok kontsultatzen dugu telefono gida, denok bilatzen ditugu errezeta baten osagaiak, galdera jakin baten erantzunak, etab. Gisa honetako irakurketa selektiboak egiteko beharrezkoa da erabiltzea bilaketa aktiboko estrategiak; ulermen globala baino, testuan dagoen informazio puntual bat aurkitzea du helburu.

Xede honi loturiko ebaluazio galderek helburu dute egiaztatzea irakurlea gai ote den informazio esplizitua aurkitzeko, aldez aurreko baldintza edo eskakizun bati. Adibidez: pertsonaien ezaugarriak ematea, gauzak aurkitzea edo kontaktaren denborazko *continuum*-aren une jakin batean gertatzen diren gertakizunak bilatzea.

b) Ulermen globala

Ulermen globalaren ezaugarria **testua bere osotasunean** hartzea da. Irakurketa mota honetan, xehetasunak osotasunean galtzen dira. Irakurleak xede jakin batekin irakurtzen du: testuan esaten denaren ideia orokorraz jabetzeko xedearekin. Subjektuak, testuari aurre egiten dionean, edukiaren funtsezko ikuspegia jaso nahi du.

Funtsezko ikuspegi horrek ahalbidetzen dio zatiak osotasunean txertatzea, baita zatien arteko koherentzia bilatzea ere. Ebaluazio galderetan hainbat lan mota daude, ulermen mota hau eskatzen dutenak; adibidez, gaiarekin edo funtsezko ideiarekin zerikusia dutenak, testuaren asmo orokorarekin zerikusia dutenak, eta abar. Lan horiek izan daitezke, adibidez, izenburu egokiena hautatzea, edukiari egokitzen zaion izenburua asmatzea, ideia nagusia ateratzea, testua laburtzea, etab.

c) Testua interpretatzea eta berregitea

Ulermenari loturiko lan hauen helburua da testuaren zentzuarekin bat egiten duen **interpretazioa** egitea. Irakurtzeko modu honekin testuaren zatiak lotuko ditugu, koherentzia bilatuz eta zatiek osotasunarekin zentzua izatea bilatuz. Indukzioak, dedukzioak eta inferentziak egitea ere suposatzen du, izan ere, testuaren baitan ez baitago informazio guztia eta testuaren baitan ez baitira testuaren zentzu guztiak agortzen. Autorearen asmoak ez daude testuko hitzen literalitasunaren baitan.

Irakurtzeko molde honek irakurleari eskatzen dio mendera ditzala trebetasun jakin batzuk: irakurleak aurretik dituen ezagutzak eta testuan dagoen informazioa, erlazionatzeko gaitasunari loturik daudenak. Irakurketa molde hau biziki egokia da testuaren ulermen sakona erdiesteko. Alderdi honi loturiko lanak izaten dira, nagusiki, eta adibidez, autorearen asmoa deduzitzea, edo tesi bat baieztatzen duten frogak identifikatzea, kausa eta ondorioak identifikatzea, testuingurutik abiatutako dedukzioak, etab. Ebaluazio galderen artean, gisa honetakoak ere izaten dira: zein dira bi pertsonaia hauen arteko harremanak? ordena itzazu istorio honetako sekuentziak; zergatik gertatu zen? zergatik iruditzen zaizu autoreak...?, etab.

d) Testu baten edukiaren gaineko hausnarketa

Interpretazioan irakurleak munduaz duen ezagutza erabiltzen da testua interpretatzeko eta ulertzeko. Gisa berean, irakurketa hausnartuan irakurleak testuaren edukiaz pentsatzen du, testuaren errealitatea hobeki interpretatzeko. Irakurleak testua zentzuz ulertu behar du, bere ikuspegiekin eta eskemekin aurrez aurre jarri ahal izateko.

Gisa honetan, irakurri duena balioesten ahal du perspektiba pertsonal eta kritiko batetik. Irakurketa errealitateaz dugun ikuspegia aberasteko bitarteko gisa hartzen da. Irakurri duguna gure eskemetan sartzen dugu, horrela, gure eskemak aberastuz eta ñabardurez osatuz. Irakurtzea aitzakia da irakurriaren gainean pentsatzeko eta testuaren edukiaz geure buruari galde egiteko. Irakurleak horrelako lanak egiten dituenean, testutik haratago joaten da.

Alderdi hau balioesten duten lanen artean honakoak: testuan ez dauden frogak edo argudioak eskatzea, testuaren zatien garrantzia balioestea, irizpide eta arau estetiko edo moralen arabera erkatzea, benetako egintzak eta egintza fantastikoak bereiztea, narrazioaren sinesgarritasuna balioestea, testutik kanpoko frogak ematea, etab.

e) Testu baten formaren gaineko hausnarketa

Irakurketa modu honek testuaren alderdi formalak aintzat hartzen ditu. Irakurleak ezaugarri jakin batzuk aztertu behar ditu, bai alderdi formalei dagokienez, bai gaiaren ikuspegiari eta estiloari dagokionez. Azken horrek (estiloak) testuan duen garrantzia ere aztertu beharko du. Irakurlea, irakurketa modu honen bidez azpian

dauden ezaugarriez eta ñabardurez ohartzen da. Izan ere, ezaugarri eta ñabardura horiek maiz oharkabean pasatzen baitira.

Alderdi hori balioesten duten lanen artean daude, kasu, aditz baten subjektua aurkitzea, galderak egitea testuaren egituraren gainean, estiloaren gainean eta erregistroaren gainean, adjektiboak ordezkatzeko eta emaitza balioesteko, aditz baten plurala justifikatzeko, azalpen koherenteren bat bilatzea kakotx artean jarritako testuari, besteren artean.

2- Irakurriaren ulermena ebaluatzeko proben alderdi formal zenbait

Komeni da argitzea, lehenik eta behin, ulermenezko irakurketa idatziz zein ahoz (ikasleei zuzenean galdetuz) ebalua daitekeela. Hori argitu ondotik, aipamen txiki bat egin nahi dugu idatzizko proben bi alderdi formalen gainean.

a) Galdera motak

Komeni da galdera itxiak (test motakoak) zein irekiak (erantzuna sortu behar den horietakoak) izatea. Azken horiek zailagoak dira zuzentzeko, baina askatasun handiagoa ematen diote ikasleari testua ulertu duela erakusteko.

b) Galderen tipologia

Komeni da mota guztietako galderak izatea; hots, ulermen literalekoak, ulermen globalekoak, berregin beharrekoak eta edukiaren eta formaren gainean hausnartzekoak. Orientabide modura, ondoko proportzioa gordetzen ahal da:

Ulermen literala	% 20
Ulermen globala	% 20
Interpretazioa eta berregitea	% 30
Edukiaren gainean hausnartzea	% 15
Formaren gainean hausnartzea	% 15

3.- Adibide praktiko bat

Tipologia desberdineko galderak dituen testu bat dugu hurrengoa:

Behiala, hodei zuri bat sortu zen itsaso urdinaren gainean. Hodei txikia lasai egon zen lehenbiziko bi asteetan zeruan, urari beha. Baina arratsalde batean mendebaldeko haizea iritsi zen eta handik mugiarazi zuen.

-Aizu, haize! nora naramazu? –esan zion hodeiak artega.

-Mendebalderantz! –erantzun zion haizeak, jo eta jo, gelditu ere egin gabe-. Itsaso zabalera goaz!

Denbora tarte batez ibili ziren, harik eta ekialdeko haizea azaldu zen arte. Orduan, bi haizeek demaseko borrokaldia izan zuten. Horrenbestekoa izan zen, Eguzkia bera ere ilundu zela eta itsasoak gris kolorea hartu zuela, beldurraren beldurrez. Ekaitzaren erdian, haize leun gozo bat iritsi, eta beste bi haizeek erreparatzen ez ziotela baliatuz, hodeiarengana hurbildu zen.

-Hodei –esan zuen haize leun gozoak-, ez ezazu beldurrik izan. Nik aterako zaitut hemendik eta basamortura eramanen. Han dena da lasaia eta goxoa. Eta haize zakarrak ez dira inoiz iristen.

-Mila esker, haize leun eta gozo hori! –esan zion hodeiak.

Zazpi orduko bidaiaren ondotik, halako batean, iritsi ziren.

-Hauxe da basamortua! –esan zuen harro haize leun gozoak-. Hemen sortu nintzen ni!

-Baina hondarra besterik ez da ikusten eta! –bota zuen desilusioz hodeiak- ziur zaude hauxe dela basamortua?

-Horixe baietz! zer espero zenuen bada? –esan zuen haize leunak- Esker txarreko halakoa!

Eta haize leunak alde egin zuen hodeia basamortu erdian utzita. Hodei gaixoak ez zuen beste aukerarik urrutian ikusten zen mendi batera joatea baino. Hodeia hagitz triste zegoen eta euri ttanttak bota zituen.

-Hara, hodei bat!- esan zuen mendiak hodeiaren igurtzia sentitu zuenean-. Nondik atera zara zu? arrunt hodei gutxi iristen da honaino.

-Bidaia luzea egin dut- erantzun zion hodeiak.

Eta mendiari gorabehera guztiak kontatu zizkion, eta baita itsasoarekiko sentitzen zuen mina ere.

-Itsasoa ezin urrutiago dago. Haizeren baten laguntzarik gabe ezin izanen duzu iritsi. Geldi zaitez nirekin haizeren bat pasatu arte.

Hodeiak gelditzea erabaki zuen. Gutxienik ere, izan zuen norekin mintzatu!

Denbora joan ahala lagun egin ziren. Baina egun baten, basamortuko urakan-haize bortitza iritsi zen. Biek zein biek zekiten goiz ala berandu haizeren bat pasatu eta hodeia eramanen zuela. Eta adio esan beharko ziotela elkarri. Hodeia triste jarri zen, hagitz triste, eta milaka euri ttanttetan desegin zen. Baina ttantta haiek mendira iritsi zirenean, biak ala biak poztu ziren. Inork ezin izanen zituen banatu!

Eta, egun batzuk geroago basamortura lasaitasuna iritsi zenean, mendi gain hartan kaktus txiki bat sortu zen, eta hazi eta hazi egin zen... Mendi gain hartatik itsaso urdin handia ikusi nahiko balu bezala.

Erwin Moser
Hiru hontz txikiak lanaren egokitzea

Galderak:

1. Ulermen literaleko galderak

- a) Istorio honetan lau haize daude: mendebaldekoa, basamortuko urakan-haizea, haize leun goxoa etazein da laugarren haizea?
- b) Non sortu zen hodei zuria?
 - Basamortuan.
 - Itsasoan.
 - Itsaso zabalean.
 - Mendian.
- c) Nola lortu zuen haize leun goxoak hodeiarengana hurbiltzea?.....
- d) Zergatik harritu zen mendia hodeiaren igurtzia sentitzean?
 - Biguna eta leuna zelako.
 - Hegan etorria zelako.
 - Mendira hodei gutxi iristen direlako.
 - Negarrarekin ur ttantak botatzen zituelako.
- e) Ordena itzazu galdera hauek "lehenengotik azkenera".
 - Kaktusa hazi zen.
 - Haizeak hodeia mendebalderantz eraman du.
 - Hodeia mendiaren lagun egin da.
 - Zazpi orduren buruan basamortura iritsi dira.
 - Hodeia mendiraino doa hegan.

2. Ulermen globaleko galderak

- a) Esan naturako zein bi elementuk laguntzen duten hodeia:
.....
- b) Zein tituluk erantzunen lioke hobekien irakurgaiaren edukiari?
 - Hodei baten jaiotza.
 - Hodei baten abentura.
 - Hodeia basamortuan.
 - Hodeia eta euria.
- c) Zein da istorio honetako protagonista?
.....

- d) Lot itzazu gezi bidez ekintzak eta ekintza horiek non gertatzen diren:
- Hodei zuri bat sortu zen Mendian
 - Eguzkia ilundu zen Basamortura iristean
 - Hodeiak desilusia hartu zuen Itsasoan
 - Haize leun gozoak hodeia utzi zuen
 - Hodeiak gelditzea erabaki zuen.

3. Testua interpretatzeko eta berregiteko galderak

- a) "Denbora joan ahala lagun egin ziren" Zer esan nahi du?.....

- b) Zergatik sortu zen hodei zuria itsaso urdinaren gainean?

- c) Zergatik haserretzen dira haize leun gozoa eta hodeia?
- Hodeia jenio txarrekoa delako.
 - Haize leun gozoak gehiegi eskatzen duelako.
 - Basamortua urruti dagoelako.
 - Hodeiak desilusia hartzen duelako basamortuan.
- d) Haize leun gozoak hodeiari esaten dio basamortura eramanen duela han ez dagoelako haize zakarrik. Egia da hori, irakurritakoaren arabera?.....
- e) Ekialdeko eta mendebaldeko haizea elkartu zirenean demaseko borrokaldia izan zuten eta itsasoa gris bihurtu zen beldurraren beldurrez. Zergatik bihurtu zen grisa zerua?

- f) Mendian sortu den kaktusak zera irudikatzen du:
- Mendiaren eta hodeiaren arteko adiskidetasuna
 - Haizea eta haize leun gozoa
 - Mendiak itsasoa ikusteko duen asmoa
 - Basamortuko lasaitasuna.

4. Testuaren edukiaren gaineko hausnarketa galderak

- a) Irakurketa errealia edo fantastikoa iruditzen zaizu? zergatik?.....

- b) Irakurketan giza portaeraren bat duten izaki naturalak azaltzen dira. Zure iritziz, zein pertsonaiak ditu giza ezaugarri gehien?.....
 Zergatik?
- c) Hodeiak egiten dituen bidaietan bada besteak baino fantastikoagoa den une bat. Bidaiako zein unetan dago fantasia gehien?
- Ekialdeko haizeak eramaten duenean.
 - Mendebaldeko haizeak eramaten duenean.
 - Haize leun gozoarekin joaten denean.
 - Mendira bakarrik joaten denean.

5. Formaren gaineko hausnarketa galderak

a) Errepara egiozu irakurketaren esaldi honi: “horixe baietz! zer espero zenuen bada? –esan zuen haize leunak- Esker txarreko halakoa!”. Zergatik jartzen zaio harridura ikurra “esker txarreko”-ri?

b) Testuari ongi erreparatzen badiozu, ohartuko zara esaldi labur batzuek gidoi bat dutela aurrean. Zati horiek:

- Testuan garrantzia txikiagoa duten zatiak dira.
- Pertsonaien arteko elkarrizketak irudikatzen dituzte.
- Ez dakigu zergatik dauden hor.
- Ideiarik garrantzitsuenak irudikatzen dituzte.

c) Kaktusari buruz ari dela, “eta hazi eta hazi egin zen...” esaten du. Zergatik jartzen dira hor hiru eten-puntu?